

## NAFARROAKO HERRIZ HERRI TXAPELKETA 2026

Uztailaren 25ean hasiera emanen Nafarroako 2026ko Herriz Herri Txapelketari. Aurten helduen maila bakarrik jokatu da (Gazteen maila ez da antolatuko talde faltagatik).

### MAILA ABSOLUTUA (Helduak)

#### PROBA KONBINATU BAKOITZEAN EGIN BEHARREKO LANAK

Txapelketa mistoa izanen da eta bi proba konbinatu desberdinetan lehiatu beharko dute taldeek:

#### \* Lehen proba konbinatua

3 txanda jarraian:

Modalitatea	Partaide kopurua	Lana gizonezkoetan	Lana emakumezkoetan
LOKOTX BILTZEA	1	15 lokotx (lehen txandan bildu, bigarrenean jarri eta hirugarrenean bildu)	15 lokotx (lehen txandan bildu, bigarrenean jarri eta hirugarrenean bildu)
ZAKUA	2	40 kiloko zakuarekin kirolari bakoitzak 2 itzuli eman plazari (160 m)	30 kiloko zakuarekin kirolari bakoitzak 2 itzuli eman plazari (160 m)
AIZKORA	1	Metroko enbor bat moztu	Oineko enbor bat moztu
KORRIKA	2	Guztira 8 itzuli eman plazari (640 m) / Kirolari bakoitzak 4 itzuli	
ARPANA (mistoa)	2 (G+E)	Etzanda jarritako metroko enborrari 4 korte	

- Emakumezkoen parte hartzea: Jardunaldi bakoitzean gutxienez bi kirolari emakumezkoak izan behar dute (arpanlaria + beste bat nahi den modalitatean).

#### \* Bigarren proba konbinatua (bi kirol)

Modalitatea	Partaide kopurua	Lana gizonezkoetan	Lana emakumezkoetan
TXINGA-ERAMATEA	2 (G+E)	50 kiloko txingekin 10 plaza ahalik eta azkarren	25 kiloko txingekin 10 plaza ahalik eta azkarren
INGUDE ALTXATZEA	2 (G+E)	18 kiloko ingudearekin ahalik eta altxaldi gehien minutu batean	9 kiloko ingudearekin ahalik eta altxaldi gehien minutu batean

- Talde bakoitzak 4 probak egin beharko ditu (Modalitate bakoitzean gizonezko batek eta emakumezko batek parte hartu beharko du talde bakoitzetik).

**TALDE PARTE HARTZAILEAK (5 talde):** Berriozar, Bortziriak, Irurita, Txantrea, Ultzamaldea

#### EGUTEGIA:

EGUNA	ORDUA	HERRIA	TALDE PARTE HARTZAILEAK jardunaldi bakoitzean
2026-07-25	17:00	Elizondo (Iriarte frontoia)	Berriozar, Irurita, Txantrea
2026-08-01	18:30	Bera (Altzateko frontoia)	Bortziriak, Irurita, Ultzamaldea
2026-08-16	19:00	Burlata (Ezkabazabal)	Berriozar, Bortziriak, Txantrea, Ultzamaldea
Finala			
2026-08-22	18:00	Larraintzar (Ultzama frontoia)	Finalera sailkatzen diren lau taldeak

## JOKATZEKO SISTEMA

### \* Lehen proba konbinatua

Lau jardunaldi eta finala jokatuko dira. Talde bakoitzak bi jardunaldi jokatuko ditu. Jardunalditako 4 talde onenak pasatuko dira finalera.

### \* Bigarren proba konbinatua (bi kirol)

Lau jardunaldi eta finala jokatuko dira. Talde bakoitzak bi jardunaldi jokatuko ditu. Jardunalditako 4 talde onenak pasatuko dira finalera.